Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko martxoaren 28a, astelehena — 59 — Lunes, a 28 de marzo de 2022

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## SEGURAKO UDALA

*Segurako Udaleko 2022-2024 Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren akats zuzenketa.*

AURREKARIAK

Udalbatzak, 2022ko otsailaren 16an egindako Osoko Bilkuran, 2022-2024 epealdirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zuen, eta haren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2022ko martxoaren 7an (44 zk.).

Gauzak horrela, akats materiala antzeman da, aipatutako Plan Estrategikoko 1. eranskina ez zelako argitaratu.

Zuzenketa eginda, honela gelditzen da Segurako Udaleko 2022-2024 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa:

*Segurako Udaleko 2022-2024 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa.*

ATARIKOA

Sektore publikoaren finantza jardueraren zati handi bat dirulaguntzen bitartez bideratzen da, finantza arloko laguntza neurriak baliatuz pertsona eta erakunde publiko edo pribatuen eskari sozial eta ekonomikoei erantzuteko.

Oinarrizko izaera duen Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 8.1 artikuluak honako hau dio: «administrazioko organoek edo dirulaguntzak ezartzea proposatzen duten beste guztiek, aldez aurretik, Diru Laguntzen Plan Estrategiko batean zehaztu beharko dituzte horien aplikazioarekin lortu nahi dituzten helburuak eta eraginak, horiek guztiak lortzeko behar den epea, ustez egongo diren kostuak eta finantzazio iturriak. Plana burutzeko ezinbestekoa izango da beti aurrekontuen egonkortasunerako helburuak betetzea». Azaroaren 17ko 38/2003 Legeko hamahirugarren xedapen gehigarriak ezartzen du legezko arau edo erregelamenduetan aurreikusitako politika publikoei buruzko plan edo programak Dirulaguntzen Plan Estrategikotzat joko direla edo 38/2003 Legeko 8.1 artikuluan aurreikusitako edukia jasoko dutela.

Diru Laguntzen Lege Orokorra beste urrats bat da sistema ekonomikoa hobetzeko eta arrazionalizatzeko prozesuan. Legea zuzentzen duen printzipioetako bat gardentasuna da, eta horrek modu zuzenean du eragina dirulaguntzetarako gastu publikoaren kudeaketaren eraginkortasun eta efizientzia mailaren igoeran. Zentzu horretan, dirulaguntzei buruzko informazio gehiago izateak merkatuan eragina izan ditzaketen distortsio eta interferentziak kentzea ahalbideratuko du, eta administrazio publikoen jardunen osagarritasuna eta koherentzia erraztuko du, edozein motako gainjartzea ekidinez.

Eraginkortasuna hobetzeko Dirulaguntzei buruzko Plan Estrategikoa egitea aurreikusten du araudiak. Plan hori dirulaguntzak sortu aurretik egin beharko da. Plan hau hainbat urtetarako izateko bokazioz egin da, beti ere urtero beharrezko izan daitezkeen aldaketak egin beharko bazaizkio ere.

Horregatik, Udal honek Dirulaguntzen 2022-2024ko Plan Estrategikoa onartu du. Planak ondorengo artikuluak ditu:

## AYUNTAMIENTO DE SEGURA

*Corrección de errores del Plan Estratégico de Subvenciones 2022-2024 del Ayuntamiento de Segura.*

ANTECEDENTES

El Pleno de la Corporación, en sesión celebrada el 16 de febrero de 2022, aprobó el Plan Estratégico de Subvenciones 2022-2024, y cuyo texto íntegro se publicó en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 7 de marzo de 2022 (n.º 44).

Así, se ha detectado un error material porque no se publicó el anexo 1 del mencionado Plan Estratégico.

Realizada la corrección, el Plan Estratégico de Subvenciones 2022-2024 del Ayuntamiento de Segura queda de la siguiente manera:

*Plan Estratégico de Subvenciones 2022-2024 del Ayuntamiento de Segura.*

INTRODUCCIÓN

Gran parte de la actividad financiera del sector público se canaliza a través de subvenciones, mediante medidas de apoyo financiero para atender las demandas sociales y económicas de personas y entidades públicas o privadas.

El artículo 8.1 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, de carácter básico, establece que «los órganos administrativos o cualesquiera otros que propongan el establecimiento de subvenciones deberán determinar previamente en un Plan Estratégico de Subvenciones los objetivos y efectos que pretenden con su aplicación, el plazo necesario para su consecución, los costes previsibles y las fuentes de financiación. La ejecución del plan requerirá en todo caso el cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria». La disposición adicional decimotercera de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, establece que los planes o programas relativos a las políticas públicas previstas en normas o reglamentos legales tendrán la consideración de Planes Estratégicos de Subvenciones o contendrán el contenido previsto en el artículo 8.1 de la Ley 38/2003.

La Ley General de Subvenciones es un paso más en el proceso de mejora y racionalización del sistema económico. Uno de los principios rectores de la ley es la transparencia, que incide de forma directa en el aumento del nivel de eficacia y eficiencia en la gestión del gasto público destinado a subvenciones. En este sentido, una mayor información sobre las subvenciones permitirá eliminar las distorsiones e interferencias que puedan afectar al mercado y facilitará la complementariedad y coherencia de las actuaciones de las administraciones públicas, evitando cualquier tipo de solapamiento.

La normativa prevé la elaboración de un Plan Estratégico de Subvenciones para la mejora de la eficiencia. Dicho plan deberá realizarse con carácter previo a la creación de las subvenciones. Este Plan se ha elaborado con vocación plurianual, sin perjuicio de las modificaciones que anualmente puedan ser necesarias.

Por ello, este Ayuntamiento ha aprobado el Plan Estratégico de Subvenciones 2022-2024. El Plan consta de los siguientes artículos:

EK\CV GAO-I-2022-01676

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua.*

Segurako Udalak eta, hala badagokio, haren mendeko erakundeek ematen dituzten dirulaguntzak, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean, Plan honetan, kasuan kasuko hitzarmenetan eta dirulaguntzak emateko urteko deialdien oinarrietan xedatutakoaren arabera arautuko dira.

Halaber, emakumeen eta gizonen berdintasunerako indarrean dauden legeek diotenera egon behar da, prozedura horietan egindako gastuak emakumeen eta gizonen berdintasunean eragin positiboa izan ditzaten lortzeko. Egun indarrean dagoen legedia hau da: otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa. Betiere kontuan hartuta Segurako Udalak onartutako II. Berdintasun Plana eta Segurako Udalean eta Udalerrian euskararen erabilera sustatzeko eta normalizatzeko Udal Ordenantza (2009ko irailaren 24ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratua eta 2018ko ekainaren 12an aldatua).

*2. artikulua.*

Plan honetan aurreikusitako dirulaguntzak eraginkorrak izateko, dagozkion kontsignazioak sartu beharko dira urte bakoitzeko udal aurrekontuetan eta dirulaguntzak arautzeko oinarriak onartu. Dirulaguntzak aurrekontuetan jaso eta emateko baldintza izango da aurrekontu egonkortasun helburuak betetzea, eta beraz, onartuko diren aurrekontu kontsignazioak eta dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak uneoro helburu horietara egokitu beharko dira.

*3. artikulua.*

Dirulaguntza Plan Estrategiko hau onartzeak ez du inolako eskubiderik sortzen onuradun izan daitezkeenentzat, eta ezingo dute inolako kalte-ordainik edo konpentsaziorik eskatu Plana ez bada bere horretan betetzen.

*4. artikulua.*

Segurako Udalak, deialdi publiko bidez edo lankidetza-hitzarmenak eginez, dirulaguntzak emango dizkie pertsona fisikoei, elkarteei eta erakunde pribatuei herri onurarako edo gizartearen intereseko jarduerak egiteko, baita udal eskumeneko helburuak lortzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatuko dituztenak burutzeko ere. Halaber, 2014an herriko elkarteekin egindako parte-hartze prozesuan hartutako konpromezuak kontuan hartuko dira dirulaguntzak ematerako garaian: transmisioa, parte-hartzea, euskara, parekidetasuna, herrigintza eta elkarlana talde-lana, aniztasuna, ingurumena, Euskal Herriko baloreak sustatzea eta eman-eskatu oreka. Baita ere, elkarteen autofinantzaketa maila kontuan hartuko da eta 200 €-tik beherako dirulaguntza eskaerak osorik emango dira. Hala ere, diru-laguntzak banaka aztertuko dira eta kasuan kasuko erabakiak hartuko dira.

Debekatuta gelditzen da inolako laguntzarik edo dirulaguntzarik ematea sexu-bereizkeria egiten duen edozein jarduerari eta sexu-bereizkeriagatik zigor administratiboa edo penala jaso duen edozein pertsona fisiko edo juridikori, ez eta bere hautaketa-prozesuan edo funtzionamenduan sexu-bereizkeria egiten duen edozein elkarte edo erakunderi ere.

*5. artikulua.*

Plan honen printzipio orokorrak honako hauek dira:

a) Publizitatea eta lehiakortasun askea aurrez egindako deialdi bidez. Bertan, objektibotasuna, gardentasuna, publizitatea, lehiakortasuna eta fondo publikoen banaketan berdintasuna bermatu beharko dira, guzti hori, emakida zuzenaren kalterik

CAPÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.*

Las subvenciones que conceda el Ayuntamiento de Segura, así como, en su caso, sus organismos dependientes, se regirán por lo dispuesto en la Ley General de Subvenciones, en este Plan, en los convenios correspondientes y en las bases de las convocatorias anuales de concesión de subvenciones.

Asimismo, debe estarse a lo que disponga la legislación vigente para la igualdad de mujeres y hombres, con el fin de conseguir que los gastos incurridos en estos procedimientos repercutan positivamente en la igualdad de mujeres y hombres. La legislación vigente es la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres. Siempre teniendo en cuenta Plan de Igualdad II aprobado por el Ayuntamiento de Segura y la Ordenanza Municipal para la promoción y normalización del uso del euskera en el Ayuntamiento y Municipio de Segura publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de fecha 24 de septiembre de 2009 y su modificación en fecha 12 de junio de 2018.

*Artículo 2.*

La efectividad de las subvenciones previstas en el presente Plan estará condicionada a la inclusión de las consignaciones correspondientes en los presupuestos municipales de cada año y a la aprobación de las bases reguladoras de las subvenciones. El cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria será requisito para la presupuestación y concesión de las subvenciones, debiendo ajustarse en todo momento a los mismos las bases reguladoras de las consignaciones presupuestarias y de las subvenciones que se aprueben.

*Artículo 3.*

La aprobación del presente Plan Estratégico de Subvenciones no generará derecho alguno para los potenciales beneficiarios, ni podrán exigir indemnización o compensación alguna por el incumplimiento del Plan.

*Artículo 4.*

El Ayuntamiento de Segura, mediante convocatoria pública o mediante convenios de colaboración, concederá subvenciones a personas físicas, asociaciones y entidades privadas para la realización de actividades de utilidad pública o interés social, así como para la consecución de fines de competencia municipal y la promoción de la igualdad de mujeres y hombres. Asimismo, para la concesión de las subvenciones se tendrán en cuenta los compromisos adquiridos en el proceso participativo con las asociaciones locales durante el año 2014: transmisión, participación, euskera, paridad, ciudad-trabajo-colaborativo, diversidad, medio ambiente, fomento de los valores de Euskal Herria y equilibrio existente. Asimismo, se tendrá en cuenta el nivel de autofinanciación de las asociaciones y se concederán en su totalidad solicitudes de subvención inferiores a 200 €. No obstante, las subvenciones se analizarán individualmente y se adoptarán las decisiones correspondientes.

Queda prohibida la concesión de cualquier tipo de ayuda o subvención a cualquier actividad discriminatoria por razón de sexo y a cualquier persona física o jurídica sancionada administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo, así como a cualquier asociación o entidad que discrimine por razón de sexo en su proceso de selección o funcionamiento.

*Artículo 5.*

Los principios generales de este Plan son los siguientes:

a) Publicidad y libre competencia mediante convocatoria previa. En ella se garantizará la objetividad, transparencia, publicidad, competitividad e igualdad en la distribución de los fondos públicos, sin perjuicio de la concesión directa. La concesión

EK\CV GAO-I-2022-01676

gabe. Emakida zuzenak, aplikatu dakiokeen arauan ezarritakoaren arabera, aurrez dagokion aurrekontu kontsignazioa izan beharko du.

b) Aurrez deialdian ezarritako irizpide objektiboen arabera egingo da emakida, onuradun izan daitezkeenak irizpide horiek aurrez ezagutzen dituztela bermatzeko.

c) Eraginkortasuna jarritako helburuak betetzerakoan eta efizientzia baliabide publikoak esleitzerakoan, kantitate eta kalitate aldetik justifikatu beharko dira.

d) Dirulaguntza eskatzen duten erakundeen helburuak diruz lagundutako jardueretan berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioetara egokitzen direla kontrolatzea eta aztertzea.

e) Plan Estrategikoaren egokitasuna uneoro egiaztatzea, hau da, Plana termino sozialetan justifikatzea. Planak kontuan hartzen dituen herritarren beharrak. Finantza gaitasuna. Arlo horretako udal eskumena azaltzea.

*6. artikulua.*

Dirulaguntzak emateko eskuduntza, eta beraz, Dirulaguntzen Plan Estrategikoa exekutatzekoa, alkatearena izango da. Dirulaguntza programak aurrekontu zuzkidura egokia eta behar bestekoa egotearen menpe daude. Dirulaguntzak edo emakida zuzenak (hitzarmenak) eman aurretik gastua onartu beharko da Segurako Udaleko aurrekontu arauetan aurreikusitako moduan. Erakunde pribatuei herri onurako edo gizartearen intereseko jarduerak egiteko edo udal eskumeneko helburu publikoak lortzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatuko dituztenak.

Eta, azkenik, dirulaguntzak eman aurretik, emakida arautzen dituzten arauak edo oinarriak onartu beharko dira.

II. KAPITULUA

PLANAREN EDUKIA

*7. artikulua.*

Segurako Udalak dirulaguntzak emango ditu urtero, ondoko lerro-estrategiko eta helburu zehatzen baitan:

1. Gizarte-ekintza (Ongizatea eta Gazteria).
2. Hezkidetza.
3. Kultura.
4. Euskara.
5. Kirola.
6. Landa garapena.

* 1. lerro-estrategikoa: Gizarte-ekintza.

— Helburuak: Gizarte kalte-beratasun egoeran dauden herritarren gizarteratzea sustatzea. Familia eta kolektibo behartsuenen beharrak asebetetzeko beste instituzioetatik jasotzen dituzten laguntzak osatzea. Herriko elkarteek egiten duten gizarte-jarduerari eusten laguntzea. Gazteei eta behar bereziko herritarrei etxebizitza alokatu ahal izateko dirulaguntzak ematea. Elkarteen informazio, sentiberatze, prestakuntza eta zabalkunde-ekintza espezifikoak sustatzea eta laguntzea, beti ere parte-hartzea sustatuz.

— Exekuzio epea: Urterokoa.

— Finantzazio iturriak: Udalaren funts propioak, urteroko aurrekontuaren kontura.

directa, de acuerdo con lo establecido en la norma aplicable, deberá contar con la consignación presupuestaria correspondiente.

b) La concesión se realizará de acuerdo con los criterios objetivos establecidos en la convocatoria previa para garantizar el conocimiento previo de los mismos por parte de los potenciales beneficiarios.

c) Eficiencia en el cumplimiento de los objetivos planteados y eficiencia en la asignación de los recursos públicos, que deberá justificarse en cantidad y calidad.

d) Controlar y analizar la adecuación de los objetivos de las entidades solicitantes de la subvención a los principios de igualdad y no discriminación en las actividades subvencionadas.

e) Verificar en todo momento la adecuación del Plan Estratégico, esto es, justificar el plan en términos sociales. Las necesidades de los ciudadanos que contempla el plan. Capacidad financiera. Exposición de la competencia municipal en la materia.

*Artículo 6.*

La competencia para la concesión de las subvenciones y, por tanto, para la ejecución del Plan Estratégico de Subvenciones corresponderá al Alcalde. Los programas de subvención dependen de que exista una dotación presupuestaria adecuada y suficiente. La concesión de subvenciones o concesiones directas (convenios) requerirá la aprobación del gasto en los términos previstos en las normas presupuestarias del Ayuntamiento de Segura. A entidades privadas para la realización de actividades de utilidad pública o interés social o para la consecución de fines públicos de competencia municipal y para la promoción de la igualdad de mujeres y hombres.

Y, por último, con carácter previo a la concesión de las subvenciones, deberán aprobarse las normas o bases reguladoras de la concesión.

CAPÍTULO II

CONTENIDO DEL PLAN

*Artículo 7.*

El Ayuntamiento de Segura concederá anualmente subvenciones dentro de las siguientes líneas estratégicas y objetivos específicos:

1. Acción Comunitaria (Bienestar y Juventud).
2. Coeducación.
3. Cultura.
4. Euskera.
5. Deporte.
6. Desarrollo rural.

* Línea estratégica 1: Acción social.

— Objetivos: Promover la integración social de la población en situación de vulnerabilidad social. Complementar las ayudas que reciben de otras instituciones para satisfacer las necesidades de las familias y colectivos más desfavorecidos. Contribuir al mantenimiento de la actividad social que realizan las asociaciones locales. Facilitar ayudas económicas para el alquiler de vivienda a jóvenes y personas con necesidades especiales. Promover y apoyar acciones específicas de información, sensibilización, formación y difusión de las asociaciones, fomentando la participación.

— Plazo de ejecución: Anual.

— Fuentes de financiación: Fondos propios del Ayuntamiento con cargo al presupuesto anual.

EK\CV GAO-I-2022-01676

* 2. lerro-estrategikoa: Hezkidetza.

a) Helburuak: Hezkuntza ardatz duten elkarte eta ekimenak sustatzea eta bultzatzea, herritar guztien parte-hartzea sustatuz eta emakumeen presentzia indartuz ahalduntze prozesuen bidez. Kalitateko aisialdia eskaintzea, herri nortasuna, transmisioa, aniztasuna eta euskararen sustapena ardatz hartuta. Gizarte-harreman onak bultzatzea eta lagun berriak egitea parekidetasunean oinarrituta. Eskola-kirola sustatzea eta bultzatzea.

b) Exekuzio epea: Urterokoa.

c) Finantzazio iturriak: Udalaren funts propioak, urteroko aurrekontuaren kontura.

* 3. lerro-estrategikoa: Kultura.

a) Helburuak: Euskal kultura sustatzea. Herri nortasunaren transmisioa eta auzolana bultzatzea. Kultur ekitaldiak, jaialdiak eta festak antolatzea. Tradizioan oinarritutako ekitaldiak sustatzea. Herri giroa eta parte-hartzea lantzea eta bultzatzea. Parekidetasunean oinarritutako kultura zabaltzea. Herriko kultur-elkarteei antolaketan laguntzea eta elkarrekin kultura zabaltzea. Tokiko euskal hedabideei laguntzea.

b) Exekuzio epea: Urterokoa.

c) Finantzazio iturriak: Udalaren funts propioak, urteroko aurrekontuaren kontura.

* 4. lerro-estrategikoa: Euskara.

a) Seguran, euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea eta normalizatzea. Herritarrei euskara ikasteko dirulaguntzak ematea. Atzerritarrei euskara eta euskal kultura ezagutzeko erraztasunak eman eta euskara ikasteko dirulaguntzak ematea. UEMA Mankomunitatearekin udal barruko planean jasotakoa eta Euskararen plan estrategikoan jasotakoa aurrera eramatea eta honen funtzionamendurako diru-ekarpena behar den garaian egitea. Euskara sustatzeko ekintza edo jarduera bereziak antolatzen laguntzea eta finantzatzea. Euskararen transmisioa ziurtatzea eta horretan lagunduko duten ekintzak antolatzea.

b) Exekuzio epea: Urterokoa.

c) Finantzazio iturriak: Udalaren funts propioak, urteroko aurrekontuaren kontura.

* 5. lerro-estrategikoa: Kirola.

a) Helburuak: Kirol-jarduerak sustatzea. Herritar guztiek kirola egin dezaten sustatzea, emakumezkoen parte-hartzea sustatzea, kirolaren bidez bizi-kalitatea hobetzea, gizarte-harremanak bultzatzea eta lagun berriak egitea eta kirol-ohiturak sortzea.

b) Exekuzio epea: Urterokoa.

c) Finantzazio iturriak: Udalaren funts propioak, urteroko aurrekontuaren kontura.

* 6. lerro-estrategikoa: Landa garapena.

a) Helburuak: Segurako abeltzain, nekazari eta merkataritza txikiaren sustapena. Tokiko produktuen kontsumoaren garrantzia, bertako ekonomiaren sustapena eta zabalkundea bultzatzea eta landa garapenari garrantzia ematea.

b) Exekuzio epea: Urterokoa.

c) Finantzazio iturriak: Udalaren funts propioak, urteroko aurrekontuaren kontura.

*8. artikulua.*

Plan honen eranskinean, aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntzak honako irizpide hauen arabera antolatzen dira:

Aurrekontu-partida.

Objektua: Irizpide honen arabera zehazten da dirulaguntzaren xedea, eta ondoren ebaluatu egingo da.

* Línea estratégica 2: Coeducación.

a) Objetivos: Promover e impulsar asociaciones e iniciativas centradas en la educación, promoviendo la participación de toda la ciudadanía y potenciando la presencia de las mujeres a través de procesos de empoderamiento. Ofrecer un ocio de calidad centrado en la identidad popular, la transmisión, la diversidad y el fomento del euskera. Impulsar las buenas relaciones sociales y hacer nuevas amistades desde la paridad. Promoción y fomento del deporte escolar.

b) Plazo de ejecución: Anual.

c) Fuentes de financiación: Fondos propios del Ayuntamiento con cargo al presupuesto anual.

* Línea estratégica 3: Cultura.

a) Objetivos: Promoción de la cultura vasca. Impulsar la transmisión de la identidad popular y el trabajo vecinal. Organización de eventos, festivales y fiestas culturales. Promoción de eventos basados en la tradición. Trabajar e impulsar el ambiente popular y la participación. Difundir una cultura basada en la paridad. Apoyar a las asociaciones culturales locales en su organización y difundir conjuntamente la cultura. Apoyo a los medios de comunicación locales vascos.

b) Plazo de ejecución: Anual.

c) Fuentes de financiación: Fondos propios del Ayuntamiento con cargo al presupuesto anual.

* Línea estratégica 4: Euskera.

a) Promover y normalizar el conocimiento y uso del euskera en Segura. Subvenciones a la ciudadanía para el aprendizaje del euskera. Ayudas para facilitar el conocimiento y aprendizaje de la lengua y cultura vasca a personas extranjeras. Llevar a cabo con la Mancomunidad UEMA lo recogido en el Plan Intermunicipal y en el Plan Estratégico del Euskera y realizar puntualmente la aportación económica para su funcionamiento. Colaborar y financiar la organización de acciones o actividades específicas de promoción del euskera. Asegurar la transmisión del euskera y organizar acciones que contribuyan a ello.

b) Plazo de ejecución: Anual.

c) Fuentes de financiación: fondos propios del Ayuntamiento con cargo al presupuesto anual.

* Línea estratégica 5: Deporte.

a) Objetivos: Promoción de las actividades deportivas. Fomentar la práctica deportiva de toda la ciudadanía, fomentar la participación de las mujeres, mejorar la calidad de vida a través del deporte, fomentar las relaciones sociales y la creación de nuevas amistades y hábitos deportivos.

b) Plazo de ejecución: Anual.

c) Fuentes de financiación: Fondos propios del Ayuntamiento con cargo al presupuesto anual.

* Línea estratégica 6: Desarrollo Rural.

a) Objetivos: Promoción ganadera, agraria y del pequeño comercio del Segura. La importancia del consumo de productos locales, el impulso y difusión de la economía local y la importancia del desarrollo rural.

b) Plazo de ejecución: Anual.

c) Fuentes de financiación: Fondos propios del Ayuntamiento con cargo al presupuesto anual.

*Artículo 8.*

En el anexo de este Plan se ordenan las subvenciones previstas presupuestariamente bajo los siguientes criterios:

Partida presupuestaria.

Objeto: Bajo este criterio se especifica la finalidad para la que se destina la subvención, la cual será posteriormente objeto de evaluación.

EK\CV GAO-I-2022-01676

Zenbatekoa: Urteko kontsignazioari dagokiona.

Kudeaketa-modalitatea: aurreikuspena bereizten duen irizpidea, hura emateko aplikatu beharreko prozedurari dagokionez (lehia askea, lankidetza-hitzarmena, programa).

III. KAPITULUA

DIRUZ LAGUNDUTAKO PROGRAMEN ERAGINKORTASUN AZTERKETA. KONTROLA ETA EMAITZEN AZTERKETA

*9. artikulua.*

Dirulaguntza bakoitzaren eraginkortasuna hobeto aztertzeko, udalak txosten arrazoitua eskatuko die onuradunei, egindako ekintzen kopuruari eta lortutako helburuen justifikazioari buruzkoa. Zehazki, honako hauek zehaztu beharko dira ebaluaziorako:

a) Helburua.

b) Erakunde onuraduna eta, hala badagokio, laguntzailea.

c) Diruz lagundutako zenbatekoa.

d) Dirulaguntzaren zenbatekoan garatutako ekintza zehatzak.

e) Diruz lagundutako ekintza lortu duten herritarren kopurua.

Dirulaguntza ematen duen departamenduaren balorazioa laguntza eman zenean lortu nahi ziren helburuekiko egokitasunari buruz eta dagokion programarekin jarraitzearen edo kentzearen bidezkotasunari buruz.

*10. artikulua.*

Gardentasuna. Lerro estrategiko bakoitzean emandako dirulaguntza guztiak urtero argitaratuko dira udal webgunean, bertan adieraziz laguntzak nork jaso dituen, zenbatekoa, eta diruz lagundutako ekintza.

*11. artikulua.*

Planaren indarraldia amaituta, eta berria egin aurretik, Alkateak ebaluazioa egingo du Ogasun Batzordean. Bertan, gutxienez, honakoak jaso beharko dira: Planaren betetze-maila, lortu nahi ziren helburu eta eraginetan dirulaguntzek izan duten eraginkortasuna eta efizientzia eta ondorioak; eta horrekin batera, hurrengo Dirulaguntza Plan Estrategikoa egiteko iradokizunak.

IV. KAPITULUA

FINANTZAZIOA

*12. artikulua.*

Segurako Udalak ematen dituen dirulaguntzak funts propioekin finantzatuko dira, indarrean dagoen ekitaldiko erakunde bakoitzaren aurrekontuen IV. kapituluaren kargura. 2022. urterako aurreikusitako hasierako zenbatekoa 313.982,95 eurokoa izango dela aurreikusten da. Beraz, Estrategia Plan honetan aurreikusitako iraupen-epean, zenbatekoa 941.948,85 eurokoa da.

*Azken xedapena.*

Plan hau indarrean jarriko da behin betiko testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta indarrean jarraituko du Udalaren Osoko Bilkurak aldatzea edo indargabetzea erabakitzen duen arte.

Segura, 2022ko martxoaren 17a.—Alkatea. (1676)

Importe: Referido a la consignación anual.

Modalidad de gestión: Criterio que distingue la previsión en cuanto al procedimiento a aplicar para su concesión (libre concurrencia, convenio de colaboración, programa).

CAPÍTULO III

ANÁLISIS DE LA EFICACIA DE LOS PROGRAMAS SUBVENCIONADOS. CONTROL Y ANÁLISIS DE RESULTADOS

*Artículo 9.*

Para un mejor análisis de la eficacia de cada subvención, el ayuntamiento solicitará de los beneficiarios informe motivado sobre el número de acciones desarrolladas y justificación de los objetivos alcanzados. En concreto se deberá detallar para la evaluación lo siguiente:

a) Objeto.

b) Entidad beneficiaria y, en su caso, colaboradora.

c) Importe subvencionado.

d) Acciones concretas desarrolladas en el importe de la subvención.

e) Número de ciudadanos a los que ha alcanzado la acción subvencionada.

Se valorará por el ayuntamiento la adecuación a los objetivos perseguidos al tiempo de su otorgamiento y la procedencia del mantenimiento o supresión del programa del que trae causa.

*Artículo 10.*

Transparencia. Todas las subvenciones concedidas en cada línea estratégica se publicarán anualmente en la página web municipal, indicando la persona beneficiaria, el importe y la acción subvencionada.

*Artículo 11.*

Finalizada la vigencia del Plan, y antes de la elaboración del nuevo, el Alcalde realizará una evaluación en la Comisión de Hacienda. En el mismo deberán recogerse, al menos, el grado de cumplimiento del Plan, la eficacia y eficiencia de las subvenciones en los objetivos e impactos pretendidos, así como las sugerencias para la elaboración del próximo Plan Estratégico de Subvenciones.

CAPÍTULO IV

FINANCIACIÓN

*Artículo 12.*

La financiación de las subvenciones que conceda el Ayto. de Segura se llevará a cabo con fondos propios con cargo al capítulo IV de los Presupuestos de cada entidad del ejercicio en vigor. Para el año 2022 la dotación inicial prevista anual asciende a 313.982,95 euros. Por lo tanto, en el plazo de duración previsto en este Plan Estratétigo, la cantidad asciende a 941.948,85 euros.

*Disposición final.*

El presente Plan entrará en vigor con la publicación del texto definitivo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley de Bases de Régimen Local, y seguirá en vigor hasta que el Pleno del Ayuntamiento acuerde su modificación o derogación.

Segura, a 17 de marzo de 2022.—La alcaldesa. (1676)

EK\CV GAO-I-2022-01676

1. ERANSKINA / ANEXO 1

| *Partida*<br>*Partida* | *Azalpena*<br>*Objeto* | *Zenbatekoa (€)*<br>*Importe (€)* | *Kudeaketa*<br>*Gestión* | *Lerroa*<br>*Línea* |
|---|---|---|---|---|
| 1 0000.481.341.00.01 | SEGURAKO TXIRRINDULARI ELKARTEA | 8.000,00 | Izenduna / Directa | 5 |
| 1 0000.481.341.00.01 | SEGURAKO KIROL ELKARTEA: PILOTA ETA MENDIA | 8.300,00 | Izenduna / Directa | 5 |
| 1 0000.481.341.00.01 | SEGURAKO KIROL ELKARTEA: FUTBOL TALDEA | 6.000,00 | Izenduna / Directa | 5 |
| 1 0000.481.341.00.01 | TXORITEGI EHIZA ETA ARRATZA ELKARTEA | 1.100,00 | Izenduna / Directa | 5 |
| 1 0000.481.334.00.01 | AZPILA DANTZA TALDEA | 2.700,00 | Izenduna / Directa | 3 |
| 1 0000.481.334.00.01 | IPARRA HEGOA KULTUR ELKARTEA | 6.000,00 | Izenduna / Directa | 3 |
| 1 0000.481.334.00.01 | GANBARAN NORBAIT DABIL! KULTUR ELKARTEA | 5.000,00 | Izenduna / Directa | 3 |
| 1 0000.481.334.00.01 | GOIERRIKO BERTSOZALE ELKARTEA | 700,00 | Izenduna / Directa | 3 |
| 1 0000.481.335.00.01 | HITZ EDO IRRI EUSKARAZ ELKARRI ELKARTEA | 7.775,00 | Izenduna / Directa | 4 |
| 1 0000.481.326.00.01 | HAITZ-LEHOR GURASO ELKARTEA | 4.500,00 | Izenduna / Directa | 2 |
| 1 0000.481.231.00.01 | CARITAS | 3.500,00 | Izenduna / Directa | 1 |
| 1 0000.481.414.00.01 | MADURA ELIKADURA ELKARTEA | 3.000,00 | Izenduna / Directa | 6 |

EK\CV GAO-I-2022-01676